

33E/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 21ekoa, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak emana, zeinaren bidez agintzen baitzaio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuari abian jar dezala Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027) prestatzeko prozesua.

Nafarroako Gobernu honek ildo politiko nagusiak "Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako 2019-2023 programa-akordioan" ezarrita dauzka. Akordio horretan berariaz aipatzen da hizkuntza politika, hain zuzen ere 3.8 kapituluko 6. puntuko jarduketa proposamen honetan: "Euskararen 2. plan estrategikoa prestatzea, gobernu aurrerakoi baterako Akordioan ezarritako ildo nagusiaren barnean".

Hala, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du bere hizkuntza politikari esparru ordenatu, koherente eta ebaluagarri bat ezarriko duen plangintza estrategikoa emateko, I. Plan Estrategikoari (2016-2019) jarraipena emanez.

Nafarroako Gobernuak 2019-2023 legegintzaldirako Akordio Programatikoa hizkuntza politikaren gainean jasotakoaz gainera, Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027) lege eta arau marko honetan kokatzen da: Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna; Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioak eta Europako Kontseiluko adituen batzordearen txostenak; Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea; azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretua, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan; eta azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretua, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena.

Era berean, Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019), jadanik bukatu eta ebaluatua, zeina erreferentzia baliotsua baita hartatik abiatu Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027) diseinatu eta prestatzeko.

Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1.- Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027) prestatzea Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak.

2.- Foru Agindu hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzura, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzura eta Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira.

Iruñean, 2020ko apirilaren 21ean.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO KONTSEILARIA

Ana Olló Hualde